

# Startinnova proiektua

---

## Diru Sarrerak

**Definizioa:** Bezeroak produktu batengatik enpresari ematen dion diru kopurua da. Dakigunez, enpresa baten helburu nagusia etekinak lortzean datza, eta hau lortzeko lortutako diru-sarrerak ken gastuak kalkulatzeko dira.



Mozkina = Diru-sarrerak - Gastuak



Aipatu beharra dago gure proiektua aurrera atera dadin kapital minimo bat jarriko dugula enpresako bazkideek Crowdfunding inbertitzeko eta honek lortu behar dugun kapital hori lortzeko baliabide bezala erabiliko dugu. Crowdfunding web orri bat da, non zure proiektua finantzatzeko laguntzen dizu eta modu honetan dirua lor dezakezu.

## Sarrerak

Gure enpresak sarrerak lortzeko hainbat egitasmo pentsatu ditugu egitea, gure produktua ez baita beste produktuen antzera saltzen, web orri bat baita eta ez du preziorik. Izan ere, besteetan aipatu bezala prezioa era batera bezeroak erabakiko du, ze bera izango da gure web orriari bizitza emango diona donazioen bidez.

Lehenik eta behin, ohikoa den bezala publizitatea egingo dio gure web guneak beste enpresa batzuei, eta horretarako, gasturik suposatzen ez duen, dohainik den metodo bat erabiliko dugu, zehazki google adsense izenekoak. Honek zuk nahi duzun publizitatea ipintzen uzten zaitut trabarik gabe.



Bigarrenik, harpidetza edukitzeko ahalmena izango duzu, hots, webgunean erabiltzaileek bere kontua sortzeko eskubidea izango dute, eta bi taldeetan banatuko dira: alde batetik, ordaintzen dutenak, (Vip) hauek eskubide eta abantaila gehiago edukiko dituzte informazio gehiago jasoz eta eduki gehiagoz gozatuz; bestalde, web orria libreki erabiltzen dutenak egongo dira, hau da, ordaintzen ez dutenez besteekin alderatuta abantailarik ez dituztenak izango dira.



Arestian aipatu bezala, donazioak egiteko ahalmena edukiko du bezeroak. Web guneak inbertsio fondo bat edukiko du, non erabiltzaileak nahi duen kapitala eskainiko du, hau eginez gure web gunea hobetzeko ahalmena edukiko du, hau da, zenbat eta inbertsio gehiago jaso webguneak orduan eta kalitate gehiago izango du. Azkenik aipatuko dugu erabaki dugula, donazioak honela bantuko ditugula:

# Startinnova proiektua

GKE (gobernuz kanpoko erakundeak) batentzako %20-a izango da, eta %80-a aldiz, web orria aurrera eramateko erabiliko dugu.



## Gastuak

Sarreraz aparte alde txar bat du enpresa bat edukitzea eta hauek gastuak dira, baina beti hauek murrizten saiatzen dira, eta guk honako plangintza erabiltzea erabaki dugu:

Lehenik eta behin, guri publizitatea egiteagatik ordaindu beharrekoa, gastu bat izango da, baina hori saihesteko edo murrizteko gutxienez, guk publizitatea egiten dugun enpresekin akordio batera iritsi gaitzke kostua minimizatzeke.



Bigarrenik, langileei ordaindu beharreko soldatekin aurkituko gara, beraiek eskaintzen diguten zerbitzu teknikoarengatik.

Hirugarrenik, langileak eta enpresako arduradunak lan egingo duten lokala ordaintzea beste gastu bat izango litzake, zehazki, alokairua. Baina ez hori bakarrik, ze alokairuaz aparte argi indarra, ura eta gasa, behar ditugu gure lantokia proposa izan dadin.



Laugarrenik, aipatu beharra dago plus bat ordaindu behar dela hilero zure web gunea sarean edukitzeagatik, hau da, zure webgunea googlen lehenengoa izatea nahi baduzu gehigarri hori ordaindu behar da.

Azkenik baina garrantzia kendu gabe, esan daiteke, beti kapital kopuru minimo bat eduki behar dela edozein larrialditarako, izan ere, edozer gauza gerta dakiguke. Gure kasuan, aurrezten joango gara ordenagailuaren mantenimendurako.

